

Balorezko proposamena

Bezeroaren lana funtzionala da, hau da, guri erosten dizkigute produktuak haien helburu espezifiko batzuk betetzeko, arazo batzuk konpontzeko edota haien beharrak asetzeko. Gure kasuan adibidez, gure erosleek helburu espezifiko bat dute, mundua ongi tratatzea, horregatik gure produktu ekologikoak erosten dituzte.

Gure enpresaren abantailetakoa bat, gure langileek produktuak instalatzen dituztela da, eta beste enpresa batzuek ez bezala, gu garaiz iritsiko gara; izan ere, enpresaren ideia nagusienetako bat bezeroekin ditugun harremanak onak izatea da. Gainera, gure instalazioek ez dute denbora gehiegirik iraungo. Ondorioz, bezeroei ez diegu asko tratatuko beraien bizitza pertsonaletan. Hortaz gain, gure enpresa ez da fisikoa izango, hau da, web batetik erosi beharko dute bezeroek, nahiz eta merkatu segmentua txikiagotu, enpresaren sarbideak errazagoak eta gehiago dira. Hala ere, baliabide fisiko batzuk beharko ditugu enpresa aurrera eramateko eta horiek lan-postu franko sor ditzakete.

Gure prezioak ez dira merkeak izango, izan ere, beste enpresek gure webgunean jarriko dituzte produktuak, baina erraztasuna izango da gure enpresak salduko duena. Objektu eta beste zenbait baliabide ekologiko azkarrago bilatzearen erraztasuna.

Muntaketa gure esku dagoenez, bezeroek ez dituzte oztopoak izango muntaketarekin. Produktu batek gaizki funtzionatzen duen kasuan, konponbide bat bilatuko genuke, konponketarik aurkituko ez bagenu, produktu hori itzultzea soluzio abat izan daiteke.

Gure bezeroek nahi duten abantaila lortuko lukete epe luze batean, haien nahia ekologismoa zabaltzea da; izan ere, horrela jarraitzen badugu, mundua suntsituko dugu. Gure helburu nagusia bezeroenaren berdina da eta uste dugu produktu ekologikoen webgune hori sortzeak ekologismoa bultzatuko duela.

Gure webgunean produktu ekologikoak saltzen dituzten enpresek, produktuak jarriko dituzte, eta guk horri komisio bat gehituko genioke, horrela, bi enpresek dirua irabaziko genuke.

Hori dena esanda, pentsatzen dugu gure enpresak abantaila asko dituela bezeroengan, bai ekonomikoki, baita erosotasunagatik. Gainera, beste enpresekin harremanak izatea oso garrantzitsua dela uste dugu.